

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 220. alea - 2017ko uztaila



**“Inor ez da perfektua” diskoa  
plazaratu dute trikitilariek**



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik

**SO URTE**

**BURU - ZURI**  
Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

kutxabank  
hemen  
eta orain **k**

**Hazirik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tef.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com

**Calbeton**

**JATETXEA**

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786  
Mobila: 607453357  
e-mail: larranaik@gmail.com

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**sasoi**iko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresioak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14  
943 19 24 42  
sasoi@hotmail.com

**Bordatxo**  
**JATETXEA**

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afarriak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunidadeen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº. 2 / 05 / 049  
NIVEL 2

# AURKIBIDEA

07

## GURE OHITURAK

San Juan suaren bueltan, zahagi erretzeak San Pedro bezperan...



08

## ALBISTEAK

Hasi dira udako ekintzak Gaztelekuan: irteerak, txapelketak...



11

## KULTURA

"Tentazioak" arte erakusketa kolektiboa dago ikusgai klaustroan



12

## ALBISTEAK

Elurzuloaren berreskuratze lanak, auzolanean, Itziarren



13

## ZUHATZA

Haurrentzako ekimenak, udalekuak, Mintzalagunen ikasturte amaiera...



## BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

## ARGITARATZAILEA

**Zuhatza**  
euskarako elkarteak  
deba

## LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Saibunordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

## Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Gaizka Etxebarria

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

**Inprimategia:** Euskalinpri


**Tirada:** 1.400 ale

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**ISSN** 2171-7656

## OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.



## Zezenak bizirik nahi ditugulako

Azken garai hauetan zezenketen gaia gero eta eztabaidatuago dagoen gai bat da, pil-pilean dagoen gai bat. Donostian, Iruñean, Hernanin... gai honen inguruan eztabaidatzen ari dira, debatea sortu da!! Deban zergatik ez???

Urte hauetan guztietan, zezenketa zaleen argudioek indarra galdu dute, gauza batzuk justifikatu ezinak baitira.

Segidan, zezenketak justifikatu nahian zezenketa zaleek erabiltzen dituzten argudio (aitzakia) batzuk aipatuko ditugu. Argudio (aitzakia) hauei zezenketen kontrako taldeen erreplika gehituko diegu:

### 1.- Zezenketa kultura da

Ados, gure kulturaren parte dira, baina ez dugu ahaztu behar beste kultura batzuetan ablazioa, lapidazioa edota txakurren edo oilarren borrokak fenomeno kulturalak direla. Eta ez dugu pentsatuko hemengo inork ekintza horiek kulturaren izenean defendatuko dituenik, ezta?

### 2.- Zenbat urteko tradizioa dute zezenketek?

Bai, ados... eta? X urte izateak guztia justifikatzen du ala?

Ez dugu ahaztu behar gizartea aldatzen doan heinean tradizioak ere aldatu egiten direla. Gogoratu Lekeitioko

Antzarraren kasua edo Hondarribiko eta Iruneko Alardeen kasua, adibidez.

### 3.- Artea da

Sekula ulertu ez dugun argudio bat da hau. Zergatik da artea? Koloreengatik? Dantza antzeko gorputz mugimenduen-gatik? Musikarengatik? Hala eta guztiz ere, artea izateak ala ez izateak ez du ezer justifikatzen.

### 4.- Korridetako zezenak, ohorezko den heriotza bat izateaz gain, oso ondo bizi dira

Sarritan entzuten dugu: "Nik ere nahiko nuke korridetako zezen bat bezala bizi", "zezenak erregeen moduan bizi dira", etab...

Zekor bat (*novillo*) definizioz, bi urte eta hiru urte arteko zezen gazte bat da. Zezen bat GUTXIENEZ 20 urte bizi da. Eraman ditzagun proportzio hauek pertsonen mundura: demagun gaur egun pertsona bat GUTXIENEZ 80 urte bizi dela, beraz, zezenen proportzioa hemen jartzen badugu, zezenketa zale asko eta asko 12 urterekin gustura hilko lirateke herriko plazan torturatuak izan ondoren, izan ere, 12 urtez sekulako bizitza izan baitute, eta horrek plazan emango den tortura eta tratu txarrak justifikatzen ditu.

Zezenak 4-6 urte ingururekin tortura-

tuak eta akabatuak izaten dira, giza portzioetara eramanda, asko jota, 24 urte. Zertarako bizi 80 urtera arte, ezta?

### 5.- Zezenak desagertu egingo dira zezenketarik gabe!!

Guk dakigunez behintzat, zezenak zezenketak izan baino lehen bazeuden munduan.

Zezenen etorkizuna hainbeste inporta bazaie, badakite zer egin: eskatu Pirinioetan, Pagoetan... aske uzteko eta beste animaliekin bezala (otsoa, hartza, etab.) plangintza bat egiteko.

Hemen kontua ez da nire edo zure eskubideez hitz egitea. Hemen zezenaren eskubideez ari gara. Zezenek ere eskubideak dituzte (gurean hain famatua den UNESCOren deklarazioa) eta zezenketa zaleek beraien "ondo pasatzeko" eskubidea zezenaren heriotza azkar eta duin bat edukitzeko eskubidearen gainetik jartzen dute.

Zezenketa zaleentzat zezenek ez daukate inongo eskubiderik! Horretarako jaio omen dira!

ADI!!!!!! ZEZENAK BIZIRIK NAHI DITUGULAKO laster jakinaraziko dizkizuegu hurrengo ekintzen data!!!

*Debako zezenketen aurkako taldea*

## Oroimen hunkigarriak



Atxa:

Irailaren 5ean urtebete beteko da gure ondotik joan zinela... zenbat momentu alai pasa genuen elkarrekin!!

Joan ginenean Josu Bravo ikustera Salamancako kartzelara, bidai osoan ez ginen isildu ere egin. Eta hori, hitz gutxi-koa zinela... baina zuri atsegin zitzaizun... gai bat ateraz gero ez zinen isiltzen.

Beste behin, Zapato Azule egunean Ondarrura joan ginen kamisetak saltzera.

A ze barreak bota genituen!!!

Arranon ere ze ondo pasatzen genuen afarrietan... eta zenbat ordu pasatzen genuen bertan kontu kontari...

Guztiak momentu hunkigarriak benetan!!!

Mila esker, Atxa. Zauden tokian zaudela, ez zaitut inoiz ahaztuko.

Besarkada handi bat.

*Marian Larrañaga*

*Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen, ez zuen aldegingo.*

*Bainan, honela ez zen gehiago txoria izango eta nik... txoria nuen maite.*

*Hitzak: Joxean Artze  
Doinua: Mikel Laboa*

## Eskerrik asko Debasket Saskibaloia klubaren izenean



Oraindik ez da urtebete pasa lehendabiziko bilera egin genuenetik. Irailaren 2an herriko 5 gazte bildu ginen, aurreko parrandatan tontakeria bezala sortutako ideia bati forma emateko asmoz. Deban saskibaloia talde bat sortzea izan zen bertan landutako gaia. Hainbat arrazoi zeuden ideia hau aurrera eramatera bultzatu gintuztenak. Batetik, debar batzuk herri-  
tik kanpo jokatzera behartuta zeuden. Bestetik, Deban genuen talde kirol eskaintza ez zitzaigun oso zabala iruditzen, ondoko herrietara begirada bat botatzea nahikoa zen hori ikusteko. Bestalde, herriko kiroldegia nahiko hutsa ikusten genuen, denok oroitzen baikinena futbito txapelketak astebururo sortzen zuen giroaz. Arrazoi hauek ikusita erakargarria iruditzen zitzaigun saskibaloia talde bat sortzea, beraz, lanean jarri ginen.

Herritar orori zuzendutako bilera ireki bat egin genuen Agirre jauregiko ispiluen gelan. Bertatik atera zen gazte-txoen taldea sortzeko ideia. Gure proiektua martxan jartzeko ostiralero biltzeko konpromisoa hartu genuen. Udaletxearekin ere harremanetan hasi

ginen eta, hori gutxi balitz, Gipuzkoako saskibaloia federazioak bere laguntza eskaini zigun. Dena alde genuen.

Atzera begiratuz gero, oso harro gaude orain arte egindakoaz. Argi dugu lan asko geratzen zaigula aurretik, baina egin duguna ere ez da makala. Saskibaloia kluba sortu dugu, Deban kirol hau zabalteko hainbat ekintza burutuz. Herritarrek aukeratu zenuten taldearen izena. Herritarrentzat ekarri genuen Euskal Selektzioa Debako kiroldegira, baita Euskadiko minibasket txapelketa ere. Zoro Feria zertxobait girotzeko gure kanasta atera genuen arratsaldean. Debako haurrek ostiralero izan dute saskibaloian ikasteko aukera. Eguberrian ere haurrak izan ziren protagonista antolatua genuen saskibaloia egunean. Bestalde, taldekide batzuek mahaiko epaile ikastaroa egin zuten eta kurtsoa bukatzeko Beasaingo saskibaloia taldearekin elkarlanean saskibaloia kanpua antolatu dugu Deban.

Eta uztailetik aurrera zer? Ba lanean jarraituko dugula. Uztailaren erditik San Roke jaia hasi bitarte bazkide kanpaina potente bat burutzeko asmoa dugu.

Ostegun eta ostiral arratsaldeetan zein larunbat goizetan herriko plazan egongo gara, ahalik eta bazkide gehien lortzeko asmoz. Horrez gain, taldeentzako babesle bila hasiko gara eta laster jarriko gara kontaktuan herriko taberna, denda eta enpresa guztiekin aukera ezberdinak aztertzeko.

Gutun honi bukaera emateko, ezin gara zuetaz ahaztu. Herritarrek. Gure ustez, ekintza asko burutu ditugu urte honetan zehar, baina ekintza horiek ez digute ezertarako balio zuen laguntza gabe. Idatzi honen bitartez eskerrak eman nahi ditugu; batetik Debako herriari, bai atera ditugun kamisetak erosteagatik, gure zozketak ahalbidetzeagatik, photo-shoparekin kartelak egiten laguntzeagatik edota rifak erosteagatik. Bestetik, udal-letxeari eta azkenik, gure bileretara agertu zareten guztioi, saskibaloia aukera ematen ari zareten gurasoei eta, nola ez, haurrak entrenatzen ari zaretenoi. Espero dugu udan zehar ere harremanetan jarraitzea eta hurrengo urtean Debako kiroldegian elkar ikustea. Eskerrik asko Debasket Saskibaloia klubaren izenean.

*Debasket Saskibaloia Kluba*

## Debako kontalariak, familia ugaritzen

Badira lau urte ispiluen gelako aulki gorri dotorean esertzen hasi ginenetik. Zirrara eta emozio ugari. Eta begiradak. Lurrean eserita, guk esandakoari adi-adi. Begirada horiek eman digute hilabetero hor berrir egoteko gogo. Begirada goxoak, alaiak, interesatuak, eta esker onekoak.

Hor begira egon diren horietako askok aulki gorrian eseri nahi izan dute aurten, eta guk pozik euren gogo ase nahi izan dugu. Maiatzaren 7an,



Kontalari txikien saio berezia izan zen. Ispiluen gela, bete-beteta, eta lurrean ese-

rita, beste hainbeste begi, haiek esandakoari adi-adi.

Ikusleak kontalari bihurtu dira, eta gu bidelagun, ipuinak sortzen, moldatzen eta bizitzen saiatu gara. Oso aberatsa eta emankorra izan da esperientzia hau guretzat eta gure kontalari txikiak errepikatzeko gogoarekin gelditu dira.

Hau ikusita, baditugu arrazoiak aulki gorri horretan esertzen jarraitzeko. Baten batek probatu nahi al du?

*Debako kontalariak*



# GOIZANE AIZPURUA

## Apustua/norgehiagoka

Lagun batek Facebookean elkarbanaturiko estekarekin egin dut topo. “Hil egingo naizela sentitzen dut, hau bukatzera doala senti dezaket”.

Halaxe hasten zen Alex Txikonek pasa den uztailaren 1eko arratsean, Azpeitiko zezen plazan eginiko apustuari buruz idatzitako testua. Uztailaren 3ko gaueko ordu txikitan Alexek bere produkzio taldeari idatzirikoa mezua goitik behera eta interes handiz irakurri dut, nahiz eta apustu horri buruzko informaziorik ez izan, ezta jokatu zenik ere.

“Andoni hiltzen ari naz!! Andoni, hil ingo naz??”, zioen Txikonek anbulantzian bere gorputzak gehiago ezin eta zezen plazan ziplo erori ostean. Testua aurrera doan heinean, bihotza taupada azkarragoz eta eskuak izerditan ditudala konturatu naiz.

Plazara ez omen zen bere onenean irten. Bi saiheits pitzaturik. Behin baino gehiagotan dioenez, ez omen zien inguruko-ei eta afizioari hutsik egin nahi. Ez zituen beragan sinetsi zuten guztiak desengainatu nahi. Arnasa ezin biriketara iritsi, itsu eta burua tematuta. Apustu baterako bidelagun eskasak. Ziplo erori eta lehenengo pentsamendua: “Ederra desengainua guztientzat, Alex”.

“Coliseo erdian sentitzen nintzen. Ikuslegoa txaloka eta xaxaka lehoiak ni noiz irentsi zain”. Erridikuloa, apustua, nahia, erronka, harrotasuna, lotsa, norgehiagoka, desengainua, ezina,... eta guztien erdian heriotza irribarretsu dantzan!

Apustua nola jokatu zen eta zertan zetzan jakiteko gogoz sarean bila hasi naiz, nire buruaren ezin ulertua ase nahian. EITBko bideo batekin egin dut topo, apustua hitzartu

eta eskuz itxi zenekoa. Ordubeteko bilera. Mahai luze bat, alde batean Alex eta bere taldea. Bestean Mikel eta berea. Txikon eta bere taldearen artean zenbaitengan haserre egoerak ikus daitezke off-eko ahotsak berria ematen duen bitartean. Larrañagak apustua itxi du baina, pozik ez. Larritasun aurpegiak eta desafioak. Ez dago atzera bueltarik eta hareazko erlojua martxan jarri da. Azken hondar alea Azpeitiko zezen plazan eroriko da.

Beste bideo batera eraman nau lehen honek. “Txikon eta Larrañaga apustua”. Azken zatia da, biak korrika dabilta jada. Pauso baldarrean eta ezin birrikak arnasez betez. Arrainak lehorrean bezala, ahoa behin eta berriz zabalduz. Alex aurretik pasatzen zaion bakoitzeko ikusle bat entzun daiteke oihuka: “BALE!!!! ALEX, BALE!!!!”.

Beste bideo bat. “Txikonen eta Larrañagaren arteko apustuaren amaiera”. Lehenengo segundoan Alexek bi eskuak elkartu eta ikuslegoari barkamena eskatzen dio, estropezu egin eta lurrera eror ez dadin gogor eusten diote. Plaza zutik. Larrañaga amaitu ezinean. Berriemaileen artean hitz trukaketa: “Hemen biziya gehiago dek gainontzeko gauzak baino”. Buelta erdi amaitzeko.

Apustua irabazi edo galtzeko. “Erabaki guztiak errespetagarriak dira”, dio esatariak. Azken 40 metroak eta ezin. “Bizitza jokatu behar al da apustu bategatik?”, dio ahots hunkitu batek.

Anarik “Ametsen eraiste neurtua” abestian dioen bezala: “Ez zara besteek uste dutena. Agian zuk uste duzuna ere”.

Baina, ziur gugandik espero zutena baino gehiago garela.



## San Juan suaren bueltan



San Juanek irudi politak utzi dizkigute aurten ere. Bezperako suaren bueltan jende ugari bildu zen Foruen plazan eta dantzak, jauziak, musika, erromeria... izan ziren protagonista beste behin ere. Biharamunean, berriz, Santa Katalinan izan zen hitzordu nagusia. Urteroko meza ermitaren kanpoan egin zuen Patxi Aizpirtarte apaizak eta, elizkizunaren ondoren, txori-zoaz eta saldez gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.



*Irudiak: Ander Salegi*



## Zahagiak eta dantzak San Pedro bezperako hitzorduan



*Irudiak: Izaro Aulestiarte*



San Pedro bezperan plaza zaharrean ateratako argazkiak dituzue hemen. Ohiturei eutsiz, zahagiak erre zituzten ekainaren 28ko gauean -haizeak lurrera bota zuen zahagietako bat, piztu eta minutu gutxira- eta segidan dantzarien saioari eman

zitzaien hasiera. Haur eta gazte ugari aritu ziren dantzan txistulari, trikitilari eta dultzaineroen erritmorarekin. TVE Espainiako Telebista kateko Comandó Actualidad saioko kazetari eta kamerek ere iruditzen jaso zuten hitzordua.

## Hasi dira udako ekintzak Gaztelekuan



Ekainaren 28-29-30ean Murillo de Gallegora joan gara, urtero bezala, 15 urteko 40 gazterekin. Irteera hau posible izateko, ekimen ugari egin dituzte aurrez: astebururo denda jarri, gabon kantak abestu, bigarren eskuko azoka, telebistara ikusle bezala joan, guraso elkarteko festa antolatu, mozzorro showa inauterietan, rifak saldu... urte osoan gogor lan egin dute eta saria ondo irabazia izan dute. Primeran pasa dugu hiru egunetan!

Uztailaren 3tik 8ra bitarte, Donosti Cup Nazioarteko Futbol Txapelketan egon gara. Aurten errekor guztiak hautsi eta 14 urteko 3 talderekin parte hartu dugu bertan; 48 gazte animatu dira. Urte guztian Amaiak Batekin futbole-an dabilzanak eta Gaztelekuko gaztekirol proiektuarekin ostegunero entrenatzen direnak dira.

Gaztekirolekoak, Playoff B 1/8-ra iritsi dira, besteak Champions League 1/16-ra eta neskak, G-14 Playoff B

Finala jokatzerara, bigarren postua lortuz. Emaitzak emaitz,... gu hezitzaileak izanik, kirol emaitzen gaintik elkarlana, elkarrenganako errespetua, ardurak hartzea... dugu helburu. Gazte gogor eta ausartak ditugu, beldurrei aurre egin eta indarrrik gabe geratzeraino, nekez, minez jokatu dute, zelaira irtetean indarberritu eta dena ahaztuz.

*Gaztelekuko hezitzaileak*




ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

ARKATZA  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## Idazketa sortzailearen inguruko trikimailuak Luzaroko ikasleekin partekatu ditu aurten ere Yolanda Arrietak



Aurten ere Debako Ostolaza Udal Liburutegian izan da Yolanda Arrieta idazlea, maiatzean, eta harekin batera baita Luzaro ikastetxeko laugarren mailako ikasleak (hiru gela guztira) zein irakasleak ere: Garbiñe, Igone eta Bakarne. Astebetez, "Idazketa sortzailea, Nitik Gura" izenburuko idazketa tailerra eskaini du Arrietak.

Ez da euskal idazlea Debara datorren lehen aldia; bederatzi bat urte daramatza helburu berarekin etortzen. Eta datorren ikasturtean ere berriz izango da gure artean, adin ezberdineko ikasleekin tailer ezberdinak eginez, idazle izatera jolasteko aukera eman eta trikimailuak eskainiz.

Hainbat liburu argitaratu ditu Yolanda Arrietak Haur eta Gazte literaturan zein helduenean. Eta bere ibilbide literarioan hamaika sari ere jaso ditu, hala nola Eusko Jaurlaritzak antola-



tutako Haur eta gazte literaturako Euskadi saria 2015ean, "Argiaren alaba" lanagatik.

### Ohorezko matrikula Batxilergoan

Dagoeneko oporretan daude Batxilergoko ikasleak ere. 2016-2017 ikasturtea ekainean amaitu dute eta selektibitatea ere egin behar izan dute askok.

Elgoibarko Arreiturre institutuko arduradunek jakinarazi dutenez, argazkian ageri diren bost ikasleak izan dira espediente akademiko onena lortu duten gazteak (ohorezko matrikulak eskuratuta). Ezkerretik eskuinera: Nagore Bergara, Olatz Andonegi, Paule Aranberri, Naiara Mantzizidor eta Ana Zubiaurre. Arreiturre institutuko ikasleak dira guztiak: horietako bi debarrak dira (Andonegi eta Aranberri), eta Mantzizidor itziartarra da. Zorionak!





Irudiak: Ander Salegi

## “Tentazioz” bete dute Santa Maria elizako klaustroa Eskulturak eta pinturak dira nagusi aurtengo erakusketa kolektiboan

“Tentazioak” izenburua du Debako Santa Maria elizako klaustroan ikusgai dagoen arte erakusketak. Urteko sasoi berean eta leku berean erakusketa bat antolatzen den hamahirugarren aldia da hau, baina nobedade batekin dator aurtengo edizioa, Gipuzkoako klaustrorik zaharrenaren hormetan ez baita aurrez erakusketa kolektibo bat ikusteko aukerarik izan.

Bada, aurtengo erakusketan hemezortzi “tentatzailek” parte hartzen dute, gehienak Debagoienan eta Debarbarrenan jaiok edo bizi direnak. Horietako zenbaitek aurreko edizioetan beren artea banaka erakutsi diguten arren, oraingoan Deban elkarrekin egiteko erabakia hartu dute –lehen ere egin izan dute bestelako erakusketa batzuetan-. Anitza da taldea, adinez ez ezik baita diziplina edota euren artelanen estiloari dagokionean ere.

1977an sortu zen “artista-kuadrilla” hau, Eibarren Baroja Collet artistaren erakusketa baten ondoren Jose Ramon Elorzarena egin zenean. Hasierako bikote hari Asier Laspiur, Vicente Iriondo, Marino Plaza... gehitu zitzaizkien eta, denborarekin, laurogeigarren eta laurogeita hamargarren hamarkadetan, eta baita beranduago ere, beste hainbat eta hainbat artista.

Aurtengo erakusketan parte hartzen duten sortzaileak hauek dira: Vicente Iriondo, Asier Laspiur, Alberto Ibañez, Marina Barrena, Jose Antonio Azpilikueta, Fernando de Vicente, Keixeta, J.R. Elorza, Ricardo Azkargorta, Iñigo Arregi,

Bingen de Pedro, Juan Luis Goikolea, Aitor Etxeberria, Baroja Collet, Aitor Sarasketa, Jose Felix Igartua, Barbara Stammel eta Pello Alberdi.

### Uztailean eta abuztuan zehar

Uztailaren 1ean inauguratu zen “Tentazioak”, hainbat artista protagonistaren presentziarekin. Eta katalogo bat ere aurkeztu dute, erakusketaren nondik norakoak ardatz hartuta –Turismo bulegoan eskura daiteke, euro baten truke-. Uztailean eta abuztuan egongo dira ikusgai artelanak. Uztaileko ordutegiari dagokionez, asteartetik larunbatera bitartean 17:00etatik 19:00etara irekiko da erakusketa. Igande eta jaiegunetan, aldiz, 17:00etatik 20:00etara. Abuztuan, elizaren bisita orduetan soilik gozatu ahal izango da udako erakusketa artistikoak.



## Pop-Up denda Lersundi kalean, “Bertako artea eta diseinua eskura” lelopean

Azken asteburuetan, ALEIX AND QUIMek (Nere Oria, debarra) eta SÖiAk (Goiuri Unanue, oriotarra) herritarren eskura jarri dituzte beren sormenak, Lersundi kalean.

Aleix and Quim-ek egurrezko blokeak erabiliz, eskuz eta banan-banan estanzatzen ditu lihoa eta kotoia. Oihal horiek josiz blusak eta kamisetak, abarketak eta nezeserrak eta etxerako kojina eta edredoi fundak ekoizten ditu. Marka berri



horrek XVIII. mendean Bartzelonan ehuna estanzatzeko erabiltzen ziren egurrezko blokeetako hainbat irudi berreskuratzen ditu eta bere produktuetan ezarri.

Söiak diseinu eta material berritzaileak dakarzkigu, oihal teknikoak eta Japoniatik ekarritakoak. Erabilera anitzeko osagarriak, poltsak, motxilak, diru zorroak eta diseinu bereziko jakak ere eskaintzen ditu.

Moda, diseinua eta artea dira bi neska gazte ekintzaile eta sortzaile horiek eskura jartzen dituztenak, eta hori guztia ikusi eta erosteko aukera eskaini da asteburuotan Lersundi kalean zabalik izan duten denda.

## Musika eskolako trikitixa taldeak "Inor ez da perfektua" diskoa kaleratu du



Gaizka Etxebarria

Debako musika eskolako trikitixa taldeko partaideak ez dira geldirik egotekoak. Herriko jai eta ospakizunetan parte hartzen ikusten ditugu urte gutzian zehar, baina horrez gain, aurten proiektu berri bat atera dute aurrera: "Inor ez da perfektua" CDa argitaratu dute ekainean.

Martxoaren 31n, apirilaren 1ean eta 2an egin zuten grabaketa Hernaniko "Oh Brother" estudioan. Ikasle denek parte hartzea izan da helburua: soinua jotzen, panderoa jotzen eta abesten.

Trikitixa ikasten urteak daromatzenak eta aurten hasi direnak, haur eta helduak. Ilusioz gainezka aritu dira lanean eta esperientzia aberasgarria izan da denentzat.

Urteetan egindako lana dago CD honen atzean. Euskal kanta ezagunekin batera beraiek sortutako abestiak ere sartu dituzte.

CDak ondorengo saltokietan eskura daitezke: Arkatza liburu-dendan, Izenben, Buru-zurin, Zalburdin eta Zahar-Etxeko tabernan.

## Kontzertu akustikoak Debako Gaztetxean

Uztailaren 5ean (asteazkena) abiatu zen Debako Gaztetxeak uda honetarako antolatutako kontzertu akustikoen eskaintza, Urnietako Lear taldearen emanaldiarekin.

Bost hitzordu antolatu dituzte, guztiak ere asteazken gauetan -22:30ean-.

Lorrazak (Andoain) eta Lorea Zulaika (Bolibar) izan dira protagonista azken asteotan eta hurrengo kontzertuak hila- ren 26an eta abuztuaren 2an burutuko dira. Lehen saioan S. eta J. debarrak arituko dira eta, abuztukoan, berriz, Donostiako Koxka taldea.

## Folklore jaialdia ospatuko da uztailaren 28an

Uztailaren 28an (ostirala) egingo da Folklore Jaialdia Deban. Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoa (Mexiko) eta Gure Kai Euskal Dantzari Taldea izango dira hitzorduko protagonista nagusiak. 21:30ean emango zaio hasiera.

Rafael Zamarripa Castañeda koreografo eta eskultoreak 1980an sortu zuen Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoa. 1983an lehen aurkezpen ofiziala egin zuenetik, etenik gabeko 30 urteetan, nazio eta nazioarteko bira ugari egin ditu.

## Roberto Frescoren organo kontzertua, elizan

II. Flysch Nazioarteko Organo Jaialdiaren baitan antolatutako egitarauak aurrera jarraitzen du Mutrikun, Getarian, Zumaian eta Deban. Lehenbiziko musika emanaldiak burutu

badira ere, uztailaren 31rako (astelehena) dago aurreikusita aurtengo azken kontzertua. Roberto Fresco organista arituko da Santa Maria elizan, iluntzeko 20:00etan.

## Odola emateko aukera egongo da abuztuaren 4an

Datorren abuztuaren 4an (ostirala) odola emateko saio berri bat burutuko da, arratsaldeko 17:00etatik iluntzeko 20:30era bitartean, Luzaro ikastetxean (Ifar kalean). Debako Odol Emaile Elkarateak antolatu du saioa eta bertan parte hartze-ko deialdia egin du.



## Caritas taldearen elkartasun tonbola abuztuan

Debako Caritas elkarateak jakinarazi du elkartasun tonbola egingo duela abuztuaren 5etik 20ra bitartean, Sagarnatarren lokalean (Portu kalean). Tonbola 12:00etatik 22:00etara egongo da zabalik eta sarien balioa 12.000 eurokoa da.

Udako kanpainaren baitan, bestalde, elkartasun kontzertua ere antolatu du irailaren 9rako. Amancio Prada arituko da Santa Maria elizan, 20:30ean. Sarrerek aurrez erosi beharko dira.



## Elurzuloaren berreskuratze auzolana Itziarren



Uztailaren 3an abiatu zen “Elutzetako” elurzuloa berreskuratzeko auzolana. Itziarko Auzo Udalak antolatuta eta Suhar Arkeologia taldearen gidaritzaz, asteotan burutuko da txukuntze prozesua, bolondresen parte-hartzearekin. Horrela, txanda desberdinak osatu dira, baldintza egokietan jarduteko bertan.

Lurpean galduta zegoen elurzuloa eta, horregatik, eremua garbitzea izan da lehenengo lana. Hemendik aurrera, sakoneko lurra hustea izango da egin-beharra, elurzuloaren horma-oinarriak eta zatiak agerrarazi arte. Azkenik, denboran zehar desegindako hormak berreraikiko dira, bertan jasotako materialarekin. Behin lanok amaitutakoan, hesitu egingo da elurzulo eremua eta panel informatibo bat eta seinaleak ezarriko dira bertan.

### Kokapena:

“Elutzetako” elurzuloa Andutzko parajearen dago kokatuta, tontor azpiko lepoan, Txobilar muinoaren ondoan, 500

m inguruko altueran. Industriadetik zein Mardari aldetik erraz iritsi daiteke bertara. Itsas-bista ikusgarriak ditu eta zuhaitz multzo nabarmen baten gerizan dago ezkutatuta.

### Elurzuloei buruz:

Elur eta izotzaren erabilera antzina-antzinatik da ezaguna, batez ere janariak eta edariak freskatzeko edota gaitasun eta epidemiei aurre egiteko. Izotza garaiz kanpo hornitu ahal izateko elurzuloak erabili ohi ziren.

Euskal Herrian XVI. mendetik aurrera, elurzuloak ugaritzen hasi ziren, hirietako jendearen eskariari aurre egiteko, eta hauen ustiaketa udal, monastegi edota komentuen esku egoten zen. XIX. mendearen amaieran, izotza argindarraren laguntzaz modu artifizialean egiten hasi zenean, elurzuloen gainbehera etorri zen, harik eta XX. mendeko bigarren hamarkadan bertan behera utzi ziren arte.

Elurra bildu eta denbora luzeagoan mantentzeko erabiltzen zuten prozesua

honakoa zen: elurzuloko lurra landarezko jantzi batez estaltzen zuten. Gero, erortzen zen elurra mazoaz eta makilaz prentsatzeko zuten hura trinkotzeko. Jarraian, adarrez estaltzen zuten zuloa bete arte, eta azkenik, belar lehorrarekin estaltzen zuten.

Inguruan bada elurzulo gehiagorik, Arrateko Sakonekoa Agiro mendian, edota Xoxotekoa, Izarraitzen, besteak beste. Gugandik hurre dugun arren, ezezagunagoa da Elutzetakoa. Itziarko industrialdeak desagerrarazitako Itxistan, Ibixa eta Teleixa baserrien artean ustiatzen omen zuten garai batean elurzulo hau eta bertatik Donostia, Zarautz edota Hondarribiraino garraiatzen zuten izotza, gauzez eta mandoz.

Elutzetako elurzuloa berreskuratzeko auzolana Itziarko Auzo Udalak antolatuta du eta Danobat enpresaren dirulaguntzari esker burutu da.

Inguruko ondare natural eta etnografikoa berreskuratzeko gain auzolan-kultura bultzatzea du helburu ekimenak.

*Itziarko Auzo Udala*

## Santiago Bideko segurtasuna hobetzeko lanak

Abian jarraitzen dute Santiago Bideko segurtasuna hobetzeko lanek. Itziarko gaineratik (N-634tik) Itziarrera doan herribidea garbitu eta berriro ere irekitzeko lanak hasi dituzte.

Debako Turismo Bulegoak jakinarazi duenez, errepidea alde batera utzi eta oinezkoentzako bidea erabilgarri dago jadanik.



## Puski eta Txurruski pailazoen “Klownmunicatu Fest” emanaldia izan zen zumardian



Joan den uztailaren 4an (asteartea) “Klownmunicatu Fest” emanaldia izan genuen Deban, Zuhatza Euskara Elkarteak antolatuta. Puski eta Txurruski pailazo bizkaitarren ikuskizuna zumardian egin zen, iluntzean, udako eguraldi bikaina lagun-iaztik ezagutzen genuen bikote protagonista-.

Ikuskizun parte-hartzailea eta umoretsua ekarri zuten



herrira eta dantza ugari egin zuten etxeko txikienek pailazoek aukeratutako musikaren erritmora.

Urteroko ohiturari eutsita, Zuhatzak uda sasoian haurrentzat “Udara Kulturaz Blai” lelopean antolatzen dituen ekimene-  
tako bat izan zen hau.

Eskerrik asko emanaldira hurbildu zineten guztioi!

### 200dik gora haur euskal udalekuetan

Uztailarekin batera hasi dira aurten Kolorez Blai euskal udalekuak eta hemen gaituzue beste uda batez herriko kaleak kolorez eta musikaz betetzeko prest. Izen-ematea primeran joan da, guztira 207 haur izango ditugu bi txandetan banaturik, eta 14 begirale izango dira guztira haur hauek guztiak mar-txan eta dantzan jarriko dituztenak.

Aldizkari hau inprentara bidean zegoenean, lehen txandan murgilduta genbiltzan, pozarren. Haurrak oso pozik eta gustura daude eta eguraldia ere oraingo zintzo dabil. Ekintza berri

pila batekin gatoz aurten, udalekuei aire freskoa emateko asmoz. Urteetan ospatu den San Fermin egunaren orde, aurten Marinel eguna egin dugu, jorrai eta guzti. Erromeria egun bat ere sartu dugu egitarauan, gure txiki-  
ekiek oholtza gainera igotzearen esperientzia zoragarriaz goza dezaten, protagonista bihurtuz.

Abuztuko alean izango duzue berri gehiago! Bitartean, kaleetan gora eta behera ikusiko gaituzue, jolas, dantza eta kantu-kantari!

Itziarren, aurten, talde berri bat



sortu dute, beraien udalekuak egiteko asmotan. Debatik animo eta zorte ona opa diegu.

Bukatzeko, eskerrak eman hau guztia posible egiten duzuen guztioi!

*Kolore Anitz taldeko begiraleak*

### Ikasturtea agurtu dute mintzalagunek

Ekainaren 22an pintxopotearen aitzakian elkartu ziren herriko mintzalagunak, egitasmoaren ikasturte amaiera ospatzeko, eta Zuhatza elkarteko kide batzuk ere hurbildu ziren hitzordura. Azaroan abiatu zuten programa eta harrezkero bi taldetan aritu dira euskara elkarri emanez, lagun artean, astero hitzorduak eginez.

Uda partean atseden hartu ostean, ikasturte berriarekin batera helduko zaio berriz ere Mintzalaguna ekimenari. Bien bitartean, Zuhatzak eskerrak eman nahi dizkie egitasmoan aritu diren kide guzti-guztiei, euren borondate onak eta gogoak ondo merezita baitu errekonozimendua.



## Martin Hernandezek ez zuen finalerako pasea lortu Getafen

Ekainaren 23an eta 24an jokatu zen Espainiako aire libreko atletismo txapelketa nagusia eta bertan izan zen Martin Hernandez debar gaztea 800 metroko proban parte hartzen, jubenil mailan.

Hiru semifinal izan ziren eta berauetako irabazleek eta hiruetako lehen bi market lortzen zuten finale-rako pasea. Martinek horietako batean parte hartu eta laugarren postua lortu zuen minutu bat 58 segundo eta 83 ehunekorekin; marka honek ez zion eman, ordea, finalerako sailkatzeko aukera.

Martinen hitzetan, "karrera motela eta taktikoa izan zen". Horrek eta eguraldi bero eta haizetsuak ez zioten lagundu korrikalari gazteari bere helburua lortzen.

## Abadiño nagusitu da berriz ere Deba Hiria Xake Txapelketan

Abadiñotarrak nagusitu ziren joan den uztailaren 9an jokatutako Deba Hiria Xake Txapelketan, 28,5 puntu lortuta. Gasteizko San Martin auzokoek lortu zuten bigarren postua, eta Zornotzakoez hirugarrena.

Iazko parte-hartzaile kopurua gaintduta, 32. edizio honetan Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hamabi talde aritu ziren lehian Aldats pilotalekuan. Debako klubak, San Rokek, bi talde aurkeztu zituen: A taldea zortzigarren postuan sailkatu zen eta azken-aurrekoan gelditu zen B taldea.



Ander Salegi

## Urrezko domina lortu du Amagoia Arrietak Bocciako Espainiako Kluben arteko lehiari



Uztailaren 6tik 9ra Estatu mailako Boccia Elkarteen txapelketa jokatu zen Sevillan. Bertan izan zen Amagoia Arrieta, Dordoka kirol elkartearen kirolari debarra, eta urrezko domina lortu zuen klub arteko lehiari. Dordoka-Kemen taldeko kide da Amagoia, Iker Iglesias, Carlos Gonzalez eta Mario Rodriguezekin batera.

Klub arteko txapelketan ez ezik, banakako kategorian ere lehiatu zen Amagoia Sevillan. Final-laurdenetan jokaldi bikaina egin zuen arren, azkenean

ez zuen lortu finalurrekora iristea. Nolanahi ere, uztailaren 31n Sevillan jokatuko den mundialean Espainiako selekzioarekin arituko da berriz ere lehian.

Olinpiada Berezietan sarturik dagoen kirola da boccia, petankaren antzekoa, gorputz adarretan erabateko urritasuna edo urritasun partziala duten kirolarientzat sortua. Garun paralisia duten pertsonen praktikatzeko dute gaur egun eta Dordoka (Aspace) kirol elkarteak hainbat jokalarirekin eta talde dituzten kirol modalitate hori egiten.

## Stand up paddle-ean Deba ibaian barrena

Urtero uda garaian Yako Debako Surf Eskolak eskaintzen dituen surf eta stand up paddle ikastaroez gain, aurten Deba ibaiaren jaitsierak ere antolatu dituzte uztailera, abuztuko eta iraileko zenbait asteburutan.

Stand up paddle-ean egiten dira jaitsierak eta bost bat kilometro dituzten ibilbideak. Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: kontsultatu [www.yakosurf.com](http://www.yakosurf.com) ataria edo deitu 943029600/628529695 telefono zenbakietara.

**DEBA IBAIAREN JEITSIERAK**

UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
8-9	6-7	2-3
22-23	19-20	

Erreserbak: 943029600 / 628529695

## Egokitutako bainu zerbitzua hondartzan

Gipuzkoako beste hainbat hondartzatan bezala, Deban ere badago aniztasun funtzionala edota mugikortasun mugatua duten pertsonen bideratutako itsas bainuen programaz gozatzeko aukera. Doako zerbitzua da, Gurutze Gorriko sorosleek kudeatua, eta bainua

hartzeko aulki anfibioak eskaintzen dira.

Informazio gehiagorako edo ordua eskatzeko, jarri harremanetan Debako sorospen zerbitzuarekin (607 790 020 telefono zenbakira deituta edo [deba@cruzroja.es](mailto:deba@cruzroja.es) helbidera idatzita).

## 105 igerilari bildu ditu aurtengo Itxasmilak

Joan den ekainaren 24an (larunbata) jokatu zen X. Debako Itxasmila, Mutriku-Deba itsas zeharkaldia. Eguraldi lainotsua tarteko, guztira 105 igerilarik lortu zuten 3.000 metroko ibilbidea osatzea -Mutrikuko portutik abiatu zen proba, Debako Santiago hondartzan amaitzeko-.

Helduen kategoriako lasterketa bakarrik jokatu zen. Luis Goñi hernaniarra nagusitu zen sailkapen nagusian, ibilbidea 36 minutu eta 3 segundoan osatuta. Errekorra egin zuen denbora horrekin, itsas zeharkaldi honetan aurrez ezarritako marka guztiak gaindituz. Bigarren postuan Jon Osa debarra (Urbat taldea) sailkatu zen eta Xabier Gordoia oñatiarrarentzat izan zen hirugarren postua.

Emakumezkoetan, Nerea Murua izan zen azkarrena (42 minutu eta 42 segundoko denborarekin), eta Carmela Peñalba eta Leire Ceciaga gelditu ziren bigarren eta hirugarrenen, hurrenez hurren.

Herriko partaideen artean, Gotzone Aizpurua eta Oier Perez izan ziren igerilari trebeena.



Argazkiak: Ander Salegi

## Joseba Muguruzak beste denboraldi baterako berritu du kontratua

Joseba Muguruza Bengoa (Deba, 1994) futbolaria eta Erreala akordio batera iritsi dira, 2018ko ekainaren 30a arte bere kontratua luzatuz bigarren tal-

dearekin. Debako gazteak egindako denboraldi bikainaren ordain merezia da hau. Muguruzak 33 partida jokatu ditu denboraldi honetan, 11 gol sartuta.



Irudia: Real Sociedad

## Batzar orokorra eta bazkaria Amaiak Baten denboraldia amaitzeko



Amaiak Bat Futbol Taldeak urteroko batzar orokorra izan zuen ekainaren 17an eta bazkari herrikoia ere egin zuen gero, Aldats pilotalekuan. Klubeko talde guztietako jokalariek eta entrenatzaileak izan ziren bazkarian, baita zuzendaritzako kideak eta beselako zaleak ere, eta guztira 380 bat elkartu ziren denboraldiari amaiera emateko hitzorduan -Errealeko eta Federazioko ordezkariak ere izan ziren bertan-.

Paella erraldoia dastatu ostean, urtero bezalaxe, talde bakoitzeko jokalaririk trebeenek sariak jaso zituzten.



Ander Salegi

# AMODIOZKO GUTUNAK 2017

Amodiozko gutunen lehiaketa egin da aurten ere Mendata institutuan, San Balentin egunaren bueltan, eta lehiaketara aurkeztutako lan aipagarri batzuk bildu nahi izan ditu *Berriketan*-ek orrialde hauetan. Uztailean ez ezik, abuztuan ere argitaratuko ditugu gazteen idatziak.

Laugarren mailako ikasleek gutun itxurako idazlanak aurkeztu dituzte lehiaketara eta lehenengo mailako gaztetxoek olerkiak prestatu dituzte. Saritutako lanak eta aipamen berezia lortu dutenak dituzue hemen irakurgai:

## KAIXO, MAITEA

Kaixo, maitea!

Oraintxe bertan trenea hartzen ari naiz, zugana eramango nauen bideari ekiteko. Esan daiteke ibilbide hau egiten aditua naizela, baina duela denbora bat arte ez zen zuregatik, familiarengatik baizik; oraindik gogoan dut egun hura:

Urtarrila zen, nik betiko trikimailuekin gustuko ez nituen gauzetatik ihes egiten nuen; horregatik benetan liluratu ninduen hura aurkitu nuen, zu zinen hain ederra, polita, galanta, liraina... hodeirik gabeko zeruaren antzera distira egiten zenuen. Zer ilargia baino adibide hobeza zu deskribatzeko, maitea, zu zara nire bizitzako egunerokotasunean zentzua duen gauza bakarra eta baita nire bihotzeko amodioaren erregulatzaileria ere. Itsasoko mareen antzera zeuk duzu balantza honen indarra kontrolatzeko ahalmena. Baina bueno ada-

rretatik banoala. Ia eguneroko ibilbidean martxan banoa jadanik, milaka sentimenduk gailentzen naute, milaka kezak... baina horrek bost axola niri. Bidean noala, lasterketa baten antzera sufritzen da, aldaketak egoten dira, gailendu beharreko oztopoak, batzuetan gauzak ondo aterako dira... baina beste batzuetan ez, denean bezala. Baina gauza denak ondo ateratzeko, aurreko pauso denak letraren oinean jarraitu behar dira; hala izanik, bukaeran beti dago sari bat... nire kasuan zeu zara, bizitza honetan gehien jarraitzen dudana sari hori, helmuga hori!

Poliki-poliki iristen noa, gero eta gertuago sumatzen baitzaitut. Hau guztia berria da niretzat, barrualdean denak eztanda egiten duen bitartean ni hemen naiz, kanpoan, indarkeria bortitzez astintzen nauten sentimendu


hauei lekua bilatzen; zurekin nagoen guztietan gauza berriak ikasten ditut; hala, den-dena geure artean sortzen ari garen istorio honetan jarriko dut, guri lagundu diezagun.

Jose Luis Borgesek dioen bezala, denok ados gaude, denok ados ez gaude la esatean. Dagoeneko jada zure herrian nago, zugandik gero eta gertuago; bidaia hau luze samarra egin zait, baina zugar pentsatzeak arima askatu dit. Mikel Urdangarinen kantuak dioen bezala, badira hiru aste, ikusten ez zaitudala; beraz irrikitan nago trenea gure geltoki gustukoenera iristeko. Bertan zain zeu baitzaude; ni egongo naizen moduan, zain. Zure zain egongo naiz bihotzeko geltoki honetan.

MARTIN HERNANDEZ  
(4. maila. Lehen saria)







## ZU ZARA

Mutil hura berezia da,  
bere begi berdeak hunkigarriak dira,  
bere ahotsa miresgarria.

Orduan arantzaz jositako lahar artean lore bat atera da,  
egunez eta gauzez argia da nagusi,  
tximistez beteriko zeruan eguzki distiratsua atera da.

Hau denbora luzeko kate amaigabe bat izan da,  
egunero nire begiek,  
bihotz bat marrazten dute bere bihotzean  
borobil bat bere begietan,  
triangelu bat bere irribarrean.

Gaur egunero bezala, txoriek abestu egiten dute,  
nire hortzak berriro ere erakusten hasi dira.

Eta hala izan da,  
nire etxe zaharreko atea jo duzunean...

*GARAZI GARRIDO (1. maila. Lehen saria)*



## ZU, ZU ZARELAKO

Begiak argitzen dizkidazu,  
bihotza handitzen didazu,  
triste nagoenean, zutaz pentsatzen dut  
eta irribarrea ateratzen didazu.

Orain dela asko agertu zinen,  
zure begietako distira ikusi nuenean, zeharo maitemindu  
nintzen.  
Zure ondoan printzesa eder bat bezala sentiarazi ninduzun.

Gauean izarrak ikusten egoten naizenean, gure istorio,  
anekdota eta abenturez gogoratzen naiz.  
Ilargia begiratzen dut eta zure aurpegia dela irudikatzen dut.  
Orduan, otsoa ilargiarekiko bezala, erakarri egiten nauzu,  
nahiz eta zu nire ondoan ez egon.

Behar dudan guztia zara,  
horretxegatik sentitzen naiz hain hutsa.  
Hainbeste kilometrotara zaitut  
eta batzuetan, gu urruntzen gaituen distantzia  
ni baino sendoagoa dela pentsatzen dut.  
Eta ezin dezaket zu nire ondoan ez zaudela jakitea jasan!

Nire aldamenean behar zaitut,  
zure barrea, irribarrea eta hitz goxoak disfrutatzeko.  
Sinpleki, MAITE ZAITUT.

*June Sudupe (1. maila. Aipamen berezia)*

# AGENDA

## UZTAILAK 21, OSTIRALA

-22:00. **Bertso saio musikatua:** "Ez da kasualitatea", plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

## UZTAILAK 22, LARUNBATA

-12:30. **Kontzertua:** Debako Musika Banda, Itziarko santutegiaren atzeko aldean.

-22:00. **Tango Meza:** Aitzuri Abesbatza eta Group Polifonic Ars Nova, Santa Maria elizan.

-23:30. **Dantzaldia:** Debako Musika Bandaren eskutik, Foruen plazan.

## UZTAILAK 26, ASTEAZKENA

-22:30. **Kontzertu akustikoa:** S. eta J. debarrak. Debako Gaztetxean.

## UZTAILAK 28, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, Foruen plazan.

-21:30. **Folklore jaialdia,** Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoa eta Gure Kai euskal dantzari taldearen eskutik. Zumardian.

## UZTAILAK 31, ASTELEHENA

-20:00. **Organo kontzertua:** Roberto Fresco, Santa Maria elizan.

## ABUZTUAK 2, ASTEAZKENA

-22:30. **Kontzertu akustikoa:** Koxka Taldea. Debako Gaztetxean.

## ABUZTUAK 4-13

-Argazki erakusketa: "Tantak" (Goyo Muela. Agirre jauregiko erakusketa gelan.

## ABUZTUAK 5-9

### -Kopraixak Itziarren.

Egitarau berezia antolatuko dute.

## ABUZTUAK 5-20

-Tonbola, Debako Caritas elkarateak antolatuta. Sagarnatarren lokalean, Portu kalean.

## ABUZTUAK 12, LARUNBATA

### GALERNA FESTA

-11:00. Boleibol eta futbol txapelketako finalak hondartzan.

-15:00. Bazkari herrikoia, txosna gunean.

Ondoren, kuadrillen arteko jokoak eta kalejira Matraka elektrotzarangarekin.

-23:00. Kontzertuak txosna gunean:

-Zopilotes Txirriaos (Napar-Mex)

-Egurra Ta Kitto (ska)

-Fand&Go erromeria

## Debako XXXIV. Udako Musikaldia

Lau kontzertu antolatu dira aurtengo Udako Musikaldiaren baitan:

\***Abuztuak 3: KEA ahots taldea.**

\***Abuztuak 10: Matthieu De Miguel (organoa) eta Xavier Canin (tronpeta).**

\***Abuztuak 24: Sigma Project Sax Quartet.**

\***Abuztuak 31: Cuarteto Idomeneo.**

*Emanaldiak elizako klaustroan burutuko dira, abuztuko lau ostegunetan. Iluntzeko 20:00etan emango zaie hasiera.*

## XII. Tene Mujika Beka

Tene Mujika bekarako oinarriak argitaratu berri ditu Debako Udalak. Elkar argitatearekin laguntzarekin egin du deialdia, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaldu eta gure literatura aberasteko helburuarekin. Proiektuak 2017ko abenduaren 11 baino lehen [artxiboa@deba.eus](mailto:artxiboa@deba.eus) helbidera bidali beharko dira. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

## Udako ordutegia udal liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegiarekin jarraitzen du.

\*Liburutegi orokorra: astelheenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur/gazte liburutegia, berri, 10:00etatik 13:00ak arte.

## Udako kirol kanpaina

Udaleko Kirol Sailak antolatutako udako kirol kanpainak abian jarraitzen du: piraguismo, surf, bodyboard, xakea... Izena emateko eta informazio gehiagorako, jo [www.deba.eus](http://www.deba.eus) atarira edo Turismo Bulegora.



**Uzuri**  
optika audio  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA  
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **uztailak 21, 22, 23, 31,**  
**abuztuak 1, 2, 3.**

Burgoa Zuazo:  
**abuztuak 4, 5, 6.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

**ZALDUEGI: 669 262 201**

**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 22 eta 29

BURGOA ZUAZO: abuztuak 5 eta 12

**9:30 - 13:00**



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



MARIJE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**Lizaso**  
Autozerbitzua


Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatzza**

943 191 383  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA


**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818




**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

**Azoka**

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**AISIALDIAZ  
GOZATZEKO  
HAMAIKA ARRAZOI  
ETA MILA AUKERA...**



**HERRITIK ETA  
HERRIAREN TZAKO  
EUSKARATIK ETA  
EUSKARAZ!**

*Zuhaitza*  
Euskara Erakidea

